

Maiatzaren 22an izango da Arratia Raid Ertaina Igorren

11. orrialdea

Tarara antzezlanaren Igorren ikusteko aukerea egongo da

Hika Teatroa konpainiak, *Tarara*, sensibildade eta dotorezia handiko antzezlanaren dakar Igorrenko Lasarte Aretora, maiatzaren 28an, 20:00etan. Josi Alvaradok sortu eta Arantxa Iturbek euskeratutako testua Bilboko San Franzisko auzoan dago girotuta. **13. orrialdea**



Julen Zuberok hirugarren egin dau Titan Desert 2022an

10. orrialdea

Areatza Musik & Beer maiatzaren 27 eta 28an izango da

Euskal Herriko eta nazinoarteko taldeek joko dabe Areatzan.

Blues Morning Singers, EraBatera, A Contra Blues, Laura Cox, Northagirres, The Electric Alley, The L.A. Maybe eta The Treatment taldeek, blues, jazz eta rock estiloetako musika joko dabe bariku eta zapatuko arrasti eta gauetan, Areatzako plazan ipiniko dan karpa handi baten.

Basqueland Brewing-eko garagardao artisauak dastatzeko aukerea egongo da. Basqueland Brewing Hernaniko garagardaotegiak Europako garagardao onenaren saria irabazi eban apirlean eta Barcelona Beer Challenge lehiaketaren arabera, Europako garagardaorik onena Euskal Herrian egiten da.

Janaria be egongo da jaialdian. Hiru *Foodtruck* egongo dira janaria saltzean eta zapatu eguerdian maridaje bi egiteko aukerea egongo da, ostrak eta garagardao maridajea Jamonostruck-en eskutik eta gozogazi maridajea eta garagardaoa Bilbo Dulce Saladoren eskutik. Txartelak Areatzako Bainuetxean dagoz salgai hilaren 23ra arte.

Musikari, sukaldari, margolari eta abeslariak artelan berezi bat sortuko dabe. **8. eta 9. orrialdeak**



DIMA

Ibilbide mitologikoa eta akelarrea herrian egingo dira

Hilaren 28an, 21:00etan, plazatik abiatuta, Zaharren Egoitza aurreko landetan amaituko da *Jentilak Diman* ibilbide mitologikoa eta ostein akelarrea egingo dabe bertan. Ibilbidean, zazpi guneko egongo dira eta ikuskizunak egingo dira guneko horreetan. **6. orrialdea**

ARTEA

Etxe kaleratzea egin eben Artean Ertzaintzaren laguntzeagaz

Maiatzaren 4an izan zan. Ehun bat lagun batu ziran andreari babesa emon eta kaleratze agindua gauzatzera joiazan epaitegikoei etxean sartzea oztopatzera. Ertzaintzak indarrez kendu ebazan sarreratik eta hainbat zauritu eta atxilotu bat egon ziran. **5. orrialdea**

ARRATIA

Institutuko ikasleek eta ikasle ohiek agur bana egingo dabe

Institutua ixten daben ikasleek, Batxiler bigarrenkoek, agur ekitaldia egingo dabe maiatzaren 20an, 17:00etan, Igorrenko Kultur Etxean. Bertan bizi izandakoa gogora ekarri eta irakasleei agur esango deutsee. Abestiak, bertsoak eta zirkua ikuskitzuna egongo dira ekitaldian.

Institutuko 50 urteotako ikasle ohiek be bazkaria izango dabe maiatzaren 28an. Bazkari hau Institutuaren 50. urteurrena ospatuteko jardueretako bat da. Bazkalurretik, 50. urteurrenoko ekitaldien bideo emonaldia egongo da eta bazkalostean, jantzia eta kalejire. **7. orrialdea**

EUSKARA AURRERA!

MANIFESTAZIOA

05/21 17:30
DONOSTIA
ANTIGUAKO TUNELA

Literatura txokoa

BIRJINAK

Liburu honek Irene Nemirovskyren hamabi kontakizun argitaratu bako edo topau ezin batzean dauz, horreetako zazpi Frantziaren okupazio sasoian idatziak. Hasikera baten kontakizunok ez ziran idatziak izan liburu baten agertzeko, eta igarri egiten da, testu solteak diralako. Izan be, istorioek ez daukie bat be bata-sunik, ez personaia, ez kokapen ez eta luzeera aldetik be. Baina, sano testu atseginak dira irakurteko eta seguru nago topau leitezela zure gustuko izango diran istorioak eta gaiak.

Bilduma honetan idazleak hain gogoko eukazan gaiak, bere lanetan errepikatzen diranak, erabilten dauz. *Birjinak* testuak liburuari emoten deutso izena. Nemirovsky

planteetan dau bizitzaren bitxikeria edo huskeriaren batek kasualidadez edo halabeharrez gure bizitza noranzko baten edo bestean bide-razten dauala.

Zine mintzatua, testuan ezin dau oharkabean itxi edo disimulau bere amak sekula ase ez eutsan maitasun egarrria. Gainera testuak ezin dau klitxe batzuetatik iges egin: bihotz handiko prostitutak, kale bustiak, farolak... *Happy end*-ik be ez dago. Halanda be, aitagarriena da testu honetan baliabide literario barria asmau ebal; hau da, kamera-estiloa, aurrerantzean gitxitan erabiliko zana, harik eta hogeit urte geroago *Nouveau Roman*eko idazleek berrasmau eben arte.

Umezarako oroitzenpenak *Ma-*


gia izeneko kontakizunean topau leitezke, Finlandian egondako egonaldikoak.

Idazlea Kiev-en (Ukraina) jai zan familia judutar aberats baten. Iraultza sobietarra biztu zanezo sasoian familiak Frantziara erbestatu behar izan eban. Bertan idazle egin zan eta hainbat eleberri labur eta kontakizun bilduma idatzi eban. 1929an bihurtu zan ospetsu *David Golder* eleberria argitaratu ebanean. *Suite frantse* eleberriagaitik be ezaguna da eta berau be euskeraz irakurri leitezke. Eleberri hau okupazioaren pean idatzia izan arren, ez da bertan juduen aurkako jazarpenaren aztarnarik aurkitzen, eta, ostera, bai gizabanakoren patuaz eta itxaropen faltaz berba egiten

deusku, beste idazle garaikide batzuek egiten ez eben moduan.

Donibane Lohitzunen, Hendaiaren eta Miarritzen udak pasetan ebazan. Aita-amak herriko jauregi edo etxalde eder bat hartzean eben eta neskatxoa, bitartean, ostatu xume batera bialtzen eben zaintzaile bategaz. Zaintzaile haregaz euskerea ikasi ei eban. Irene Nemirovsky, Bigarren Mundu Gerra lehertu zanean Frantziara geratu zan eta judu izateagaitik sasian ibiltzen behartuta egon zan. 1942an Frantzia okupatu atxilotu eta Auschwitzera eroan eben. Bertan hil egin eben.

Ane Miren Rilo



Irene Nemirovsky

Birjinak

Alberdania, 2011

192 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Maiatzaren 16tik 22ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 23tik 29ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 30etik bagilaren 5era

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Saillburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 91 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean ordu 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era ordu.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era ordu. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubide Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Etxebakotutea indarkeria da

Ondo ezetuten dogu alkar Artean. Herri txikia gurea. Horregaitik, Itziar eta bere seme-alabak etxetik kaleratzeko asmoa egoala jakitean, ez genduan denporarik galdu: eurei babesa emoteko lanean ipini ginan arin baten.

Etxebakotutea indarkeria basatia da. Biktimea errudun egiten daben zurrumurruen gaintetik, kokapen politikoa behar dau egoereak, emakumea zeharkatzen daben biolentziak identifikatu eta burukatzeko. Era guztietako indarkeriak ikusarazo behar doguz. Izan be, heteropatriarkaduren albo kalteak dira sarritan: indarkeria ekonomiko, indarkeria judiziala, indarkeria instituzionala. Horregaitik, Itziar eta bere seme-alabak etxetik kaleratzeko asmoa egoala jakitean, ez genduan denporarik galdu: eurei babesa emoteko lanean ipini ginan arin baten.

Maiatzaren 4an, eguerdiko 12:00etan, alkarretaratzea deitu genduan herriko eragileok familia honeri gure alkartasuna adierazoteko, etxebakotze agindua eguerdiko 13:00etarako deitua egoala jakinda. Alkartasun herria gurea.

Egun horretan, oster, laguntza, aldarrikapena eta alkartasuna zigortuak izan ziran. Begirunez hurreraturako lagun eta herrikideak jipoituak izan ginan Ertzaintzaren jazarpen neurribakoz. Hainbat zauritu eta atxilotu bat eragin ebazan poliziaren jardun oldarkorrek, besteak beste. Indarkeria poliziala,

beste behin be, min, zapalketa eta injustizien euskarri.

Arteko familia bateri indarrez kendu jako etxeko berotasuna. Asko izan dira honen lekuko mutiak eta beste asko ardurabakokeriaz mobilizaziorako deialdia egin eta ezkutau diranak. Guk irmo jarraituko dogu oster, injustiziarren aurka lanean, feminismotik, herrigintzan eta erantzukizunez. Herri burukalaria gurea. Amorrut dinogu: Itziar eta bera seme-alabak etxetik kaleratuak izan dira baina ez dabe eurenganako herritarren berotasuna lapurtzerik lortu!

KAFRANGAK ARTEAKO ANDRA TALDE FEMINISTEA ETA ARTEA SAREA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (III). Kale berbakunea sustatu guran

Badira sexu markarik ez daukien aditzak be.

Esate baterako:

Nondik etorri haz?
Nora hoa?
Zelan habil?

Hitanoa ikasten dabizen artean sarri agertzen dan zalantzea izaten da hau.

Erabilera okerra:

Nondik etorri hazana?
Nora hoana?
Zelan habilna?

ERETXIA

Kalera urteteko eta aktibetako sasoia

2022a, berbea eta ekimena indartutako urtea izan behar zala aldarrikatu genduan Alizia Iribarrenek eta biok AEKren eta Euskaltzaleen Topagunearen izenean joan dan urtearen amaieran hainbat hedabidetan argitaratutako artikulu baten. "Korrikagaz nahiz Euskaraldiagaz, barriz kalera urteteko sasoia" etorrela nabarmendu gura izan genduan, pandemiak kalte nabarmenak eragin ditualako euskerearen bizibarritze prozesuan.

Euskerearen normalizazioa ezer baldin bada, prozesu soziala da, eta koronabirusak, hain zuzen be, etxeratu eta bakartu egin gaitu, gure hartu-emonak murriztu egin ditu, ingurune erdaldunetako haurrak eta gazteak euskerearengandik urrundu, talde antolatutak ahuldu, eta hamaika egitasmo bertan behera ixtera behartu. Gure hizkuntza komunitateak sendotzeko ezinbesteko dituan hartu-emonak, antolatetako eta ekintza kolektiboak sakon sufritu dabe egoerea. Guztiz beharrezkoa da, beraz, herritarrak eta gizarte-eragileak berraktibetea, kalea barriro hartzea, euskerearen aldeko dinamikak eta antolakundeak bizitutea, eta euskerearen agenda sozial, politiko eta komunikatiboaren erdigunera eroatea.

Covid19a, oster, ez da euskerearen eta euskaldunak eraso gaituan birus bakarra. Beste batzuk aitatzearen: epaitegietatik EAEko normalizazio-prozesua trabau gura daben epaiak heldu dira, hainbatetan guztiz errazoinamentu txepetetan oinarrituta (euskerearen zailtasunarena, kasu), murgiltze-eredua Damoklesen ezpatapean dago Iparraldean, Nafarroan euskerearen garapena eta euskaldunon hizkuntza eskubideak murriztuko dituen arauak dabiz onartzen, eta gero eta ozenago entzuten dira ultraeskoitiarren eta euren diskurso homogeneizatzaile eta suprema-



KIKE AMONARRIZ GORRIA

Euskaltzaleen Topaguneko Lehendakaria

zisten ahotsak espainiar eta frantziar estaduetan.

Egoera honen erdian, atzen Korrika kemen eta energia ufada animalekoa suertatu da. Euskal Herriko bazter guztietatik eta bazter guztietara HitzEkin hedatu dan tsunami euskaltzaleak ilusino zabaldu dau ibilbide guztian zehar, irudi ahaztezinak eskainiz. Euskereak barriro kaleak indartsu hartu ditu. Azken Korrika, euskal herritarrok euskerearen bizibarritzeko daukagun desio ukaezinaren irudikapen argia izan da, eta euskaldunok euskeraz eroso bizituko daukagun nahiaren adierazpen zuzena. Oin, berbez ekiteko sasoiak jatorkuz. Eta baita aldarrikatzekoak be.

Maiatza, eta datozen hilabeteak, euskaltzaleak aktibetako deialdiz eta aukerez beteta jatorkuz. Baitezpadakoa izango da euskaldunok modu masibo eta egokian erantzutea eta parte hartzea berabertan.

Hasteko, zapatuan, maiatzaren 7an, Euskalgintzaren Kontseiluak eta berau osatzen dogun erakundeok deitutako manifestazioa izan zan Iruñean "Herritarrak ez gutxietsi" lelopean. Uriburuaren kaleak euskaltzalez bete behar doguz, bizikidetzak, hizkuntza bizikidetzak be izan behar dala adierazoteko, nafar guztien hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko, eta administrazioan eta hezkuntzan hartu gura diran neurri atzerakoiak salatutako. Asko daukagu jokoan.

Maiatzaren 8an, Senpereko aintziraren inguruetan alkartzeko aukerea izan dogu barriro be, Herri Urrats-eri, Seaskari eta murgil-

tze-ereduari babesa erakutsiz. Eta maiatzaren 21ean Gazte Euskaltzaleen Sareak bultzaturiko "Euskara aurrera" manifestazioan alkartzeko gara Donostian, gazteek erakutsi daben aktibazio nahia sustatuz.

Bien bitartean, auzoz auzo eta herriz herri, aurreko edizinoak baino masiboagoa izan daiten ahaleginduko garan Euskaldia prestatzeko lehen pausuak emoten hasiak gara, Batzordeak antolatzen eta aurkezpenak egiten. Herritarrok eta era guztietako entidateek eta erakundeek euskerearen aldeko pausu praktikoak emon daiguzan oinarriak ipintea jagoku hilabeteotan Euskal Herri osoan zehar.

Aktibazio soziala eragin eta mantentzeko, baina, ezinbestekoa da euskaltzaleen gune autoeratuak antolatzea. Horretan dabil Euskaltzaleen Topagunea oin dala 25 urte sortu zanetik. Uda ondoren antolatuko dogu karia horretara ekitaldiren bat, baina, ospatzeko modu ezin hobea izan dogu Batzar Nagusian Hendaian, zazpi alkartek eskatu dabelako bazkide izatea: Biarritzeko Mintza Lasai, Baionako Biltzoko, Izturitzeko Artetxea, Larresoroko Ote Lore, Amikuzeko Zabalik, Iruñeko Laba eta Zumaiko Larraina. Topagunea benetako nazio erakunde bihurtuko dauan pausu historikoa izan da. Lerro honeetatik, dei bat luzatu gura neuke euskera talde edo alkarerik ez dagoan auzo eta herrietan, euskaltzaleak alkartu eta sortu dagiezan. Topagunean laguntzeko eta bultzatzeko prest gaituzue.

Hasieran aitatu dodan artikulutik ateratako berba batzuk amaituko dot: "Euskerearen bizibarritze bide honetan, guztion ekarpena behar-beharrezkoa izango da: herritarrona, gizarte mobimentuena, erakundeena eta era guztietako entidateena. Soilik alkarlanean eta danon bultzadeagaz lortuko dogu euskerearen aurrera egitea, guztiok daukagu-ta egin, eragin eta eginarazoteko aukerea".

Aktibetako sasoia da. Klean ikusiko dogu alkar.

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



PEIO MURGOITIO

Hurrekoa urrunduz

Oin arte egon dan kartzelarik handienaren parte gara, guztiok gagoz preso eta ezin dogu iges egin. Ezin dogu eta ez dogu gura, bertan gustura sentiduten garalako. Ez dogu inor behar izan gure eskuak lotzeako, guk geuk lotu doguz-eta, egunero eskuetan daukaguzan aparatuak sortzean daben kate ikusiezinakaz. Bialtzen dogun mezu bakotzak gehiago estutzen ditu kateak eta guk sentidu ez arren, gero eta beharizan handiagoa sortzean deusku. Eta behar dogu.

Oheratzen garanean begiratzen dogun azken gauza da, baita itzartzerakoan begiratzen dogun lehena be. Gogorra da baina halaxe da. Sortutako dependenziak ez deusku lasai atseden hartzean ixten, lo egonda be gure arreta guztia horretara zuzenduta dago-ta. Segundo erdiko soinu bat edo dardara txiki bat, bardin da zer egiten gagozan, beti erortzen

gara tentazinoan, ezin gara begiratu barik geratu.

Inguru hurreko edo urruneko personengana gerturazten gaituan moduan, aldendu egiten gaitu. Aspaldian ikusi ez dogun lagun edo senitarteko bategaz batzerakoan, euki bako alkarrizketak nagusitzen dira eta ez dago sorpresarako lekuri, aurretiaz dana esanda dago-ta mezu huts eta inpersonalen bitartez. Barririk politenak edo txarrenak, bildurrik handienak edo gogorik sakonenak zeharka kontetan ikasi dogu, begietara begiratzek daukan garrantziari uko eginaz.

Black Mirror ikusterakoan harritu egiten gara gure errealidadetik oso urrun dagozan egoerak dirala uste dogulako, baina egunak, hileak, urteak... pasau ahala gero eta gertuago somatzen dogu gure buruan ezinezkotzat dogun uniberso fiktizio ha. Bialdutako berba bakarreko edo ikono bakar bateko mezuetatik hasiz, tik urdinetatik jarraituz eta erantzuna jaso arte emoten diran ekintza guztiak, hainbeste ikaritzen gaituan etorkizun distopikora hurrerazten gaituen pausuak dira, txikerrak baina geldiezinak. "Rew" botoia existiduten ez dala oharzen garanean, berandu izango da eta ez da arraroa izango barriro be emozinoak idatziz ez dan formatuan adierazoten ikasten hastea...

ZERTZEAN



IRANTZU LEKUE



BEGI TXINDORRA

Sorpresa handia izan zan niretzat, oin dala 20 urte, Espainian derrigorrezko soldadiskea kendu ebenean. Utopiatzat neukan, baina antimilitarismoak irabazi eban burruka hori.

Europar gerrea dagoan honetan, gerreari, munduko gerra guztiei, insumisinoa aldarrikatzen dabe antimilitaristek. Errusia eta Ukrainako gobernuak errekrutatzen dabiz herritarrak gerran soldadu izateko eta beste batzuen interesakaitik (gerrak beti dira beste batzuen interesakaitik) bizitza emon edo beste batzuk hil dagiezan. Europar Bata-sunak armak bialdu eta elikatzen dau gerra hori, heriotzea zabalduz. Eta elikatzen jarraitu ezker, zenbat denpora beharko da hona ailegetako? Memoria kolektiboak ez dau gorde zer dan gerra bat?

Arlo, maila eta ekintza eta keinu guztietan gerreari, ejerzitoei, militarismoari eta autoritarismoari insumisinoa da bide bakarra. Hemen eta mundu osoan, utopiak batzuetan gertatzen diralako.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igoire-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikerjagorri Zerbaita 100
R.P.S. 31/06

ARTEA

Ertzaintzaren laguntzeagaz bota eben andra bat etxetik

Maiatzaren 4an izan zan. Etxe kaleratzea 13:00etarako egoan aurreikusita eta ehun lagundik gora batu ziran etxeko portalean andreari alkartasuna adierazo eta babesa emoteko, baita kaleratzeak aurrera egin ez egian saiatuteko be.

Erredakzioa

Baina Ertzaintza protestarieen kontra oldartu zan, zaurituak egon ziran eta persona bat atxilotu eben. 14:30ak aldera urten zan andrea. Atxilotua 19:00ak aldera askatu eben komisaldegitik.

Etxeko portalean batutako jenteak erresistentzia baketsuan saiatu zan epaitegikoei sarrerea oztopatzen, baina epaitegikoei Ertzaintzaren laguntzea izan eben etxera sartu ahal izateko. Jentea portal aurretik kentzean modu baketsuan hasi baziran be, ertzainek indarkeria erabili eben gero. Askok izan ziran kolpeak jaso ebezanak. Baten parte medikuan, esate baterako, sei kolpe jasoten dira: buruan, hankan, ahoan, tripan eta besoetan. Ospitalera

eroan behar izan ebenik be egon zan, belauna apurtuta eukalakoan. Ez eban euki apurtuta, baina kolpe asko emon eutsien eta astebete beranduago oindino osatu barik eukan. Hirugarren batek, gorputz osoan kolpeak jaso eta "hurrengo egunetan, trolebus bat gainetik pasau izan baleust lez egon nintzan" dino. Jenteak ez eban biolentziarik erabili eta Ertzaintzaren jokaerea neurritz kanpokotzat jotzen dabe lekukoek.

Horren aurretik, 10:30ean, alkarretaratze bat egon zan udal-letxea aurrean, "Nire seme-alabaren etxea defendatuko dot" lemapean. Izan be, kaleratu daben andrea hiru seme-alabaren ama da, euretako bi adin txikikoak. Bertan 50 persona inguru batu ziran, udal ordezkariak tartean.



UBIDE

Garagardao eta musika jaialdia Ubiden

Erredakzioa

Garagardaoaren azokan Euskal Herriko garagardao artisauak dastatu ahal izango dira, maiatzaren 21ean, 12:00etatik aurrera, Ubiden, Ubier izeneko garagardao eta musika jaialdian. Estilo desberdinetako hiru taldek eta AK Pintxadiskos dj-ak ipiniko dabe musikea.

Taldeak, Txalainak, Bilboko bikote akustikoa; Matt Horan, country abeslaria eta The Longboards, Barakaldoko surf-rock

taldea dira. Arabako Garagart, eta Byra eta Gipuzkoako Baobeer egongo dira garagardaoaren azokan. Taloak eta bokadilloak be egongo dira salgai, horretarako ipinitako txosna baten.

Repsol Eguzki saria irabazi barri dauan herriko tabernan persona birentzako afaria zozketatuko dabe. Zozketan parte hartzeako, @ubier_garagardo_azoka kontua jarraitu, hiru lagun aitatu eta "Atsegin dut" emon behar da hilaren 19ra arte. 20an, irabazlearen izena argitaratuko da.

Egitaraua

Maiatzak 21, zapatua

12:00etan, garagardao azokea. 13:00etan, kontzertua: Txalainak. 19:00etan, kontzertua: Matt Horan. 21:00etan, kontzertua: The Longboards. Ostean, AK Pintxadiskos dj-a.

IGORRE

Euskera Planaren 20. urteurrena ospatu eban Batz kooperatibeak aprilean

Aprilaren 29an egin zan ekitaldia. Kooperatibeak 2001. urtetik dauka Euskara Plana, baina 2021ean ezin izan eben ospakizuna egin, pandemiaren murrizketak zirala-ta.



Xabier Arauzo.

Erredakzioa

Batz-eko Euskara Batzordeko kideak, Xabier Arauzo Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia eta Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

Xabier Arauzo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, behargin ugari eta hizkuntza ugari dagozala Batz-en esan eban "550 langile gara hemen Arratian, 1200dik gora mundu osoan bananduta gagoz: asko eta era askotakoak gara, leku askotakoak, baina aniztasun honetan euskereak bere lekua izango dau. Batz-en hizkuntzearen aniztasuna bizi dogu, gure kooperatiban sei edo zazpi hizkuntza erabilten dira eguneroko. Dana ez dogu euskeraz egiten, baina euskerea leku esanguratsu baten ipini behar dogu. Eta hori da gure konpromisoa".

Arauzok Batz euskera kontuetan eredu garria dala esan eban eta aurrerantzean be "beste enpresa batzuentzat izango zarie eredu eta BFA izango dozue bidelagun".

Euskera Plana

Batz-en hasikerako urteetan, lantaldea Arratialeko lagunez osotuta egoan, eta euren arteko hartu-emonak euskeraz izaten ziran. Enpresa handituz joan zan eta apurka, hizkuntzari jagokonez hartu-emonak aldatu egin ziran eta gaztelera nagusitzen hasi zan. 2000. urtean 380 langile inguru egozan

eta horreetatik euskaldunak ziran hamarretik zazpi. Baina hizkuntza paisaia gaztelera zan nagusi, baita dokumentazioan be. Gainera, langileen gehiengo euskalduna izan arren eguneroko hartu-emon formalean gaztelera erabilten zan.

2000. urtean langile-talde batek aurkeztu eban euskera plana martxan ipinteko proposamena zuzendaritzan. Proiektua landu eta Elhuyar aholkularitzeari eskatu jakon laguntza teknikoa, eta euren batera abiatu zan Euskara Plana. 2013. urtetik, Ahi-ze-AEK aholkularitzak daroa Batz-eko Euskara Plana garatzeko ardura.

Hogei urteko ibilbidean euskereak ikusgarritasuna irabazi dau Batz-en eta hizkuntzaren kudeaketea sistematizatu dago. Holan, 2009an eta 2017an zidarrezko Bikain ziurtagiria eskuratu eban Batz-ek, eta 2007an Bai Euskarari ziurtagiria.

Azken urteetan bide horri heldu, eta etorkizuneko ildoak zehazten hasi da egungo Euskara Batzordea. Udagoien honetan plan estrategiko barria landuten hasiko da Batz.

Alkarlana

Batz alkarlanean dabil hainbat erakundegaz euskerearen erabilera lan munduan sustatzeko. Horren artean Euslan, Euskaragileak, eusGara, eta Indeus ekimenak dagoz. Berbaldi ugari be eskaini ditue Batz-eko Euskara Batzordeko kideek enpresari egindako pausuak azaltzeko, eta gainerako enpresei euskerea sustatzeko bidean lagunduteko. Besteak beste, Udaltop jardunaldietan parte hartu izan dabe, baita Kontseiluak antolatutako jardunaldietan be.



IGORRE

Bea Ilardiak berbaldia egingo dau andrak eta sistema judizialaren gainean

Erredakzioa

Arratiako mobimentu feministeak antolatuta, maiatzaren 26an, 18:00etan, Bea Ilardia Olangua abogadua eta genero indarkerian adituak *Andrak zer itxaron geinke justizia sistemaz?* berbaldia emongo dau Igorreko Kultur Etxean.

Andrek indarkeria matxista salatutera animetan dabe erakundeek, hedabideek eta gi-

zarteak orokorrean. Baina askotan, justiziak andreari sinistu ez, eta bere kontra bihurtzen da salaketea; kasu batzuetan, seme-alabak kendu edo eta andrea kartzelan sartzeraino. Badago justizia andrentzat? Zer espero geinke androk sistema judizialetik? Itau horreek erantzungo ditu Bea Ilardia abogadua eta EH Bilduren Batzar Nagusietako bozeroaleak Igorren egingo dan berbaldian.



Maiatzaren 26an 18:00etan
Igorreko Kultur etxean
Bea Ilardia Olangua
Abokatua eta genero indarkerian aditua

DIMA

Jentilak Diman ibilbide mitologikoa eta akelarrea hilaren 28ko gauean izango da

Maiatzaren 28an ospatuko da Diman. Aurtengorako ibilbide mitologikoa antolatu dabe Txumuluxueta alkartekoek Dimako plazatik abiatu eta Zaharren Egoitza aurreko landetan amaituko dana.

Erredakzioa


Oin arte ibilbide mitologikoa Jentilubi eta Baltzolako koba inguruetan egin bada be, aurtan, kobetako egoera kontuan hartuz, herrigunera aldatu dabe ibilbidea.

Kilometro bat inguru eta zazpi gune izango ditu ibilbideak. Gune bakotxean ikuskizun bat egongo da; antezlana, abestia, jantzea eta abar. Iluntzeko 21:00etan hasita, gitxi gorabehera ordu bi iraungo dau ekintzeak.

Egoitzaren aurrekaldean antolatu da I. gunea; bigarrena, Bengoetxerantzako bide erdikaldean; errekea kurutzatu eta Bengoetxera heltzean ipiniko dabe 3.a eta 4.a Laminategin. Handik Iberre auzunera lehenagoko burdibidetik baina Iberrera heldu orduko antolatu daben 5. gunean "Baso sorgindua" egongo da. Iberre auzune erdian herriko koruak abesti bat kantauko dau. Handik barriro errekea kurutzatu eta Zaharren Egoitza aurreko landara helduko dira barriro partaideak eta bertan izango da 7. eta azken gunea. Gune honetan antzezleku natural baten garatuko dan beste ikuskizun bat ikusteko aukerea egongo da ibilbide mitologikoari amaiera emoteko. Ekitaldia gaueko 23:30ak aldera amaitutea aurreikusten da. Aurtan nazinoarteko izaki mitologiko batzuk be agertuko dira eta euskal jeinuakaz batera beste herri batzuetakoak be ikusteko eta entzu-

JENTILAK DIMAN IBILBIDE MITOLOGIKOA

Maiatzak 28, gaueko 9etan, Dimako plazan hasita



- 1G.: Jentila eta Atlasa
- 2G.: Gazte Barri dantza taldea
- Sorgina eta Meiga
- 3G.: Atremingo ikazkina antzerkia
- 4G.: Lamiñategi
- 5G.: Baso sorgindua
- 6G.: Abesbatza
- 7G.: Iau osagaiak eta ostean.....

AKELARREA EINGOgaz, musika eta jana



teko aukerea egongo da.

Ibilbide mitologikoaren ostean, leku berean, Akelarrea prestau dabe Txumuluxueta Elkartekoek. Prestatzen daben bigarren akelarrea izango da hau. Lehenengoa Indusi auzunean prestatu eben 2019an, ibilbide mitologikoa egin zan azken urtean.

Argazki eta Bideo Lehiaketea

Txumuluxueta Elkartek argazki eta bideo lehiaketa bat antolatu dau ibilbide mitologikoan zehar ateratako argazki eta bideo onenak saritzeko. Lehiaketa honetara 18 urte baino gitxiago daukien bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

DIMA

Konzentrazioa egingo dabe Diman andra batentzako justizia eske

Erredakzioa

Hilketa saiakerea eta genero indarkeria egotzita, oin dala urtebete kartzelan sartu eben andreagaz joiala auto istripu bat ustez apropos eragin eban gizona. Biktimeak, Dimako andra batek, zauri arinak izan ebazan. Oin, kalean da ustezko erasotzailea eta Andraizeak, Dimako andra taldeak, konzentrazinora deitu

dau, maiatzaren 23an, astelehena 18:30etan, Dimako plazan, "Bea eta semearentzako justizia!" lelopean.

Egun bi lehenago, hilaren 21ean, zapatua, indarkeria matxista bizi izan daben andrazkoen testigantzak jasoten dauan *Volar* dokumentala egongo da ikusgai 18:00etan Dimako eskolako kamarin. Horren ostean, indarkeria sufridu dauan andra

batek bere testigantzea emongo dau.

Gaur urtebete...

berria

Cintrocigon gizon bat atxilotu dute auto istripu bat nabaria izateagatik. bere emaztearekin zihola

USTEZKO ERASOTZAILEA KALEAN!

BEA ETA SEMEARENTZAKO JUSTIZIA!

KONZENTRAZIOA: Maiatzan 23en, 18:30etan Dimeko plazan

ARTEA

Militantzia eta aktibismo eraginkorragorako formakuntzea eskainiko dau Basoa Eskoleak

Erredakzioa

Aldaketa erradikalaren aldeko burrukan eraginkorrak izateko, hiru formakuntza saio antolatu ditu Basoa Eskoleak gizarte mobimentuetako militante eta aktibistei zuzenduta. Lehenengoa, maiatzaren 21ean izango da desobediencia zibilaren inguruko. Bagilaren 18an, nazinoar-

teko alkartasuna landuko da eta urrietan amankomuna eregiteko moduen gainean jardungo dabe. Izena formakuntza@basoa.eus helbidean emon daiteke.

Tailerok goizeko 10:00etan hasiko dira eta modu parte-hartzaileen eta gizarte eraldaketara bideratutako gizarte mobimentuan jarduteko, usteak eta erispideak indartzea eta finkatzea daukie helburu.



LEMOA

Hezkuntzako sailburua eta sailburuordea Lemoan izango dira hezkuntzako akordioa azalduten

HITZALDIA

"XXI. Mendeko hezkuntzarako oinarriak"
"Bases para una educación del siglo XXI"

LEMOAN
Kotxepin Kultur-Etxean

Maiatzak 20 19:00etan

Jokin BILDARRATZ (Hezkuntzako Sailburua)

Begoña PEDROSA (Hezkuntzako Sailburuordea)

EAJ PNV

Erredakzioa

Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako Sailburuak eta Begoña Pedrosa Sailburuordeak XXI. mendeko hezkuntzarako oinarriak izenpeko berbaldia emongo dabe maiatzaren 20an, 19:00etan, Kotxepin Kultur Etxean EAJ-PNVk antolatuta.

Hezkuntzaren lege barriaren oinarriak azalduko dabez bertan. Sindikatu eta hezkuntza komunitadeagaz modu parte-hartzailean egindako dokumentu honetan, eskola publiko eta pribaduak, gizarte kohesinoak, euskereak eta teknologiek hezkuntzan daukien egitekoa eta garrantzia ezartzen da.

LEMOA

Alokairua ordaintzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago



Erredakzioa

Lemoako Udalak, gazteei emanzipazio prozesuan lagunduteko asmoz, Lemoan etxebizitza alokatzea diruz lagunduko dau. Dirulaguntzak bagilaren 2ra arte eskatu daitezke.

18 eta 35 urte bitarteko gazteek eskatu lekiez dirulaguntzok. Hilean 700 euro baino gutxiagokoa izan behar da alokairua, etxebizitza horretan egon behar da errolatua eskatzailea eta jabe eta maizterren artean ezin da familia loturirik egon, beste baldintza batzuen artean.

Oinarriak eta eskaera orria eskuragarri dagoz udal webgunean.

IGORRE

Parkour Masterclassa emongo dabe Goiko Plazan

Erredakzioa

Hilaren 22an, 16 urtetik gorako gazteek parkourrean ikasteko aukera izango dabe Igorren, Bizkaiko Foru Aldundiaren Parkour Masterclass-ari esker. Parkourra jarduera fisiko bat da, urietan egiten dana, arkitekturako elementuak erabiliz.

Masterclasean txanda bi egongo dira. Esperientziarik ez daukien pertsonentzako, 11:00etan, parkourraren oinarriak erakutsiko dira. Hamabi eta erdietatik aurrera bariz, hobekuntza saioa egongo da. Bertan truku aurreratuak eskainiko dira.

Izena alde aurretik emon behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean. Leku mugatuak dagoz.



ZEBERIO

Untzuetan mendira igoera eta ekitaldia antolatu dabe maiatzaren 21erako

Erredakzioa

Untzuetan Nafar Gaztelua taldeak, maiatzaren 21ean, 11:30ean hamaiketako herrikoia eta 12:00etan, aureskua eta ekitaldia antolatu dauz Orozkon dagoan Untzuetan mendian. Txalapartariak eta albokariak be egongo dira ekitaldia giroten.

Mendiaren inguruko sei herriko lagunek, tartean Zeberiokoek, sortu eben taldea Memoria Historikoa berreskuratu eta ondarea balioan ipinteko asmoagaz, 2013an. Gaur egun Untzuetan gazteluaren errastu gitxi geratzen badira be, XI. mendean, Nafarroako Erresuma indartsua zan sasoian, gaztelu bat eregi zan mendiaren tontorrean. Ondorengo mendeetan, bertan izandako gertaerak eragin handia izan eben Euskal Herriko

historian, eta gaur egunerarte iraun daben mitologiari lotutako kontakizun zaharren oinarriak dagoz. Hori berreskuratzea eta zabalduzea da lantaldearen helburuetako bat.



AREATZA

Danspirenaika proiektua Areatzan abiatuko dau Aiko taldeak

Erredakzioa

Aiko taldearen Danspirenaika, Pirinioak jantzan zeharkatzeko proiektua, Areatzan abiatuko da maiatzaren 21 eta 22ko astegoienean, Klaratarren komentuan. Musika eta jantza tradizionalen inguruko berbaldiak eta ikastaro praktikoak egongo dira, baita, erromeria be. Matrikuleak 50 euroko prezioa dauka eta egiteko aiko@aikotaldea.eus helbidera edo 634 423 539 WhatsAppera idatzi behar da.

Zapatuan, 16:30ean hasi eta domekan amaituko da Danspirenaikako lehenengo astegoiena. Irakasle adituek lau ikastaro emongo ditue. Lehena, Pilar Baca Sevillako jantza espainiarreko eta flamenkoko irakasleak emongo dau, eta euskal jotearen eta buleriaren arteko loturei buruz jardungo dau.

Ondoren, Larraitz Artetxe, Aiko taldeko kideak, *Arratiako joteagaz olgetan* izeneko ikastaroa emongo dau. Zapatuko saioa amaituteko, erromeria egongo da Areatzan zehar Gudariaren plazatik urtenda.

Domekan, Claude Iruretagoyena lapurtarraren txandea izango da. Euskal jantzako janzien gainean egingo dau berba. Azkenik, Ines Uriarte Ondarroako bikoteko gidatzearen oinarriko kontzeptuei buruzko ikastaroa emongo dau.

Danspirenaikako hurrengo topaketea Jacan izango da garagarriaren atzenengo astegoienean.

Egitaraua

Maiatzak 21, zapatua

16:30ean, Danspirenaikaren ondoetorria eta aurkezpena.

17:00etan, *Euskal jota eta buleria, konpasa partekatzen* ikasta-

roa Sevillako Pilar Bacaren eskutik.

18:30ean, Aiko taldeko Larraitz Artetxeren ikastaroa *Joteagaz olgetan Arratian* Klaratarren komentuan, 20:00etan, jantzapoteoa Aiko taldeagaz Gudariaren plazan hasita.

Maiatzak 22, domeka

10:00etan, Miarrizko Maritzuli konpainiaren ikastaroa *Jauzika Pirinioetan*.

11:30ean, Ondarroako Ines Uriarteren ikastaroa *Bikotean gidatzearen oinarriko kontzeptuak* Klaratarren komentuan.



ARRATIA, ZEBERIO

Institutuko ikasle ohiak bazkari baten alkartuko dira

Erredakzioa

Institutuaren 50. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin dira ikasturtean zehar: 50. urteurreneko jaialdia, erakusketea, abestia, BEGITU argitalpena, Institutuan murala eta abar. Maiatzaren 28an ekintzei amaierara emateko bazkari bat egingo dau sortu zanetik gaur arte bertan ikasle izandakoentzat. Bazkalaurretik, 50. urteurreneko ekitaldien bideo

emondia egongo da eta bazkalostean, jantzaldia eta kalejirea. Institutu berean ikasitako belaunaldi desbardinatetako jentek alkar ikusi, ikasle sasoiak gogoratu eta ondo pasetako helburuagaz, Batxillergo bigarren mailako ikasleek zerbitzauko daben bazkari baten batuko dira ikasle ohiak. Menu bi dagoz aukeran, bata beganoa. Txartelak, 25 euroko prezioan dagoz salgai Institutuan, goizetan, maiatzaren 20ra arte,

eta hilaren 18 eta 19an, arrastiz be bai, 17:00etatik 19:00etara.



ARRATIA

Institutuko ikasleek agur jaia egingo dabe Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Batxiller 2.a, ikasleen atzen ikasturtea izaten da Institutuan. Hori dala-ta ikasturte amaieran agurra egiten deusie Institutuari ekitaldi baten bitartez. Aurten maiatzaren 20an, 17:00etan, batuko dira Lasarte Aretoan, agur esateko ikaskide, irakasle eta Institutuari berari.

Ikasleen ekimenez sortu zan agur jaia, oin dala urte batzuk. ikasleek eurek eskatuta, eta eurak izaten dira antolatzaileak. Aurten be, aurrekoetan legez, Institutuan

egindako urteak gogoan izan dagiezan, orla bat eta Institutuko zigilua daukan zapi bat emongo deutsee oroigarri moduan.



Blues Morning Singers

Blues Morning Singers Bilboko taldea, Mario Gomezek (ahotsa eta gitarrak), Carlos Joverrek (aho-soinua eta ahotsa), Jorge Gomez Abrisketak (bateria), Fabian Acarreguik (kontrabajua) eta Alberto Triguerosen (pianoa eta Hammond-a) osotuten dabe.

Blues klasikoenetarik edaten dauan esperientzia handiko taldea da, estudioan zein zuzenekoetan. Muddy Waters, Little Walter, Willie Dixon, Fats Domino, T-Bone Walker, Sonny Boy Williamson, George Harmonica Smith eta Louis Jordan-en piezak jotzen ditue, baita eurek ingelesez sortutakoak be. Hamarkada bat baino gehiagoko ibilbidea daukie eta birak egin eta nazinoarte mailako jaialdietan parte hartu dabe; Hondarribia, Getxo eta Burlatakoan, esate baterako.

Los Blues Morning Singers (2014), *Jump and Shout* (2017) eta *Winding Road* (2021) diskoak kaleratu ditue.

EraBatera

EraBatera ia gura barik sortutako taldea da. Gatibun baketak astintzen aritzeaz gainera, kantu zirriborroak pilatzen joan da Gaizka Salazar atzen urteotan. Etxean eta berak bakarrik landu ditu ideak mimo handiz, biribilduz, estudio baten grabetako momentua heldu zala sentidu arte. Pausu horretarako, baina, bidaideen beharra eukan eta abestien maketak musikari lagun batzuei erakusten hasi zan, proiektura batzea proposatuz. Holan gehitu ziran Gatibun be taldekide dauan Mikel Caballero, Ken Zazpiko Beñat Serna eta Willis Drummondoko Jurgi Ekiza.

Disko bi kaleratu ditue *Antipodetan* (2018, auto ekoizpena) eta *Izpi galdua* (2021, auto ekoizpena).

A Contra Blues

A Contra Blues Kataluniako taldea eszenalekura jaiari bizitasuna eta ausardia emoteko igongo da.

Zalantza barik, Europako egungo talde onenetako bat da; European Blues Challenge 2014 sariak, hamabi urteko karrera musikalak, zazpirehun kontzertu baino gehiagok eta sei diskok adierazoten daben moduan. Alberto Noel Calvilok (gitarra elektrikoa, harmonikea, ukelelea eta koruak), Hector Martinek (gitarra elektrikoa eta koruak), Joan Vigok (kontrabajua eta bajua), Nuria Perich-ek (bateria) eta Jonathan Herrerok (gitarra akustikoa eta ahotsa) osotuten dabe taldea.

A Contra Blues (2008), *A Contra Blues II* (2010), *En vivo* (2012), *Chances* (2013), *Rarezas y blues* (2015), *Heart and Guts* (2017) eta *Jab* (2019) diskoak kaleratu ditue.

Laura Cox

Laura Cox gitarra-jole frantsesak, bere lehenengo bideoa 2008an igon eban Youtubera eta laster, biral bihurtu zan. 350.000 jarraitzaile baino gehiago ditu oin. Arrakasta horrek bere taldea sortzera animau eban. Laura Cox beragaz batera, Mathieu Albiac-ek (gitarra), François C. Delacoudrek (bajua) eta Pascal Robert-ek osotuten dabe Laura Cox taldea.

Hasikera baten, Dire Straits, AC/DC, ZZ Top, Johnny Cash, Hendrix, Guns N' Roses eta Aerosmith-en kanten bersinoak egiten ebazan Cox-ek. Taldea, hard rock, blues eta country-a jotzen, eta bere piezak sortzean hasi zan, batez be hard blues estilokoak. Frantzia, Belgika, Suitza eta Espainiatik egin ditu birak eta Shaw Taylor, AC/DC taldeko Chris Slade eta Dr. Feelgood taldeagaz batera jo dau.

Bi disko ditu kalean: *Hard Blues Shot* (2017) eta *Burning Right* (2019).



Northagirres

Urrerxuko (Gipuzkoa) talde hau, Iñigo Agirrebalzategik (ahotsa eta gitarra), Aitor Godoyk (gitarra), Ana Agirrebalzategik (pianoa, Hammond-a eta koruak), Julen Makazagak (bateria eta koruak) eta Borja Aranburuk (bajua eta koruak) osotuten dabe. Partaideek beste talde batzuetan be jo dabe: The Hot Dogs!, Mutürbeltz, Sorkun, Dirty Jackets, Supertrooper eta Painful taldeetan, esaterako.

Euren musikeak, rock, country eta r&b estiloak nahasten ditu modu basati eta dotorean. Lau disko kaleratu ditue: *The Northagirres* (2013), *Down the Highway* (2015), *Corte fino* (2018), *Cavaré* (2020).

The Electric Alley

The Electric Alley 2012ko amaieran Cadizen sortutako rock taldea da. 1970eko hamarkadako musikearen esentziari segiduz, *Backward States of Society* euren lehen albumeko abestiak sortzean hasi ziran. Albumak prensa nazionalako kritikarik onenak izan ebazan eta 5 abestik Movistar TV ekoiztetxeko F1 kanaleko abesti-buru izatea lortu eben. Era berean, *No control* abestia Bat Formulako Munduko Txapelketan abesti nagusia izan zan 2014 eta 2015 urteetan.

Backward States of Society, *Get Electrified!* eta *Turning Wheels* albumak ditu kalean.

The L.A. Maybe

AEBko Hego Carolinako talde honek rock estiloko musikea jotzen dau; Guns N' Roses, AC/DC eta Van Halen taldeen ildotik. New Wave of Classic Rock mobimentuaren abangoardian dagoz Carolinakoak.

Alvi Robinson da taldeko buru eta ahots nagusia. Ezaguna egin zan AC/DC taldeko buru izateko hautagaietako bat izan zalako. Emozinoz betetako rocka egiten dabe. 2015ean, lagun batek bere burua hil eban eta *When I'm Gone* kantua idatzi eben terapia moduan eta itxaropen mezua bialtzeko. Ondoren, hile bitan zehar AEBko hego-ekialdeko 5 leku ederretan grabau eben bideoa, euri zaparrada baten pean, bero handiagaz eta paisaje ederretan, abestiaren izakera emozionala eta esangurea islatzeko helburuagaz eta lagunari gorazarre egiteko.

Dirty Damm Tricks albuma daukie kalean.

The Treatment

The Treatment 2008an sortutako hard rock talde britaniarra da. Aurretik taldekoek God Sacks Man izenagaz jardun eben. 2011tik bira asko egin ditue batez be Erresuma Batuan baina baita kanpoan be, Japonian berbarako. 2013an, Statu Quo taldearen talde konbidaua izan zan.

Andy Milburn-ek (bajua), Tagore Grey-k (gitarra eta koruak), Dhani Mansworth-ek (bateria), Tao Grey-k (gitarra) eta Tom Rampton-ek (ahotsa) osotuten dabe taldea.

Bideo ugari, EP bi eta estudioko bost album ditue kalean: *This Might Hurt* (2011), *Running With the Dogs* (2014), *Generation Me* (2016), *Power Crazy* (2019) eta *Waiting for Good Luck* (2021).

Zapato eguerdiko 13:30ean, hilak 28, antolakuntzako kideek BEGITURI adierazo deusienez The Electric Alley eta The L.A. Maybe taldeetako kideek Goikokalen kontzertu akustikoa emongo dabe. Musika Eskolako talde bat be batuko da emonaldia honetara.

LEMOA 946 31 44 06 ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI 946 31 03 99 BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

MANITOU HANDLING YOUR WORLD

filippini Nilfisk JCB MANITOU CTX CONTAINEX TeknoDidaktika HIKOKI POWER PROTECT GENERGY MASTER INSTANT UPRIGHT

MENDIA

Ubidestroi mendi lasterketarako izen emotea hilaren 20an zabalduko da

Erredakzioa

Martxan da Ubidestroi mendi lasterketea, urri lehenengoaren 10ean Ubideko herritik atera eta Oketa, Gorbeia, Saldropo, Bastelarra eta Eneabe igaroko dauzan mendi lasterketa herrikoa. 27 kilometro eta 1.700 metro positiboko desnibela dauka eta Gorbeia inguruko parajirik ederrenetako batzuk erakutsiko dauz bere ibilbidean zehar.

Maiatzaren 20an zabalduko da izen emotea eta garagarriaren 20ra arte, edo 300 dorsalak agortu arte, aukerea eukiko dabe 16 urtetik gorako korrikalariak bertan izena emoteko.

"Lasterketa huts bat baino, Ubide girotuteko eta Gorbeia ezagutzarazoteko proiektua da Ubidestroi. Egitarau oparoaz gozatuko dabe bertaraten diranek, bai korrikalari

zein ikusleek. Berbaldiak, umeentzako jolasak, kontzertuak, zozketak, talo jana... Ubidestroi Ubideko herritar batzuk Ubideko Udalaren laguntzeagaz antolatu dogun lasterketa xume eta erromantikoa da. Proiektu handien garai honetan jasagarritasuna ardatz daukan lasterketa txiki herrikoa. Herritik herriarentzat sortua. Animau zaitetze bertan parte hartzean" dinoe antolakuntzakoek. Tuga markako kamiseta tekniko eta opariren bat jasoko dau korrikalari bakotzak eta lasterketa egunean zozketatuko diran opariak be egongo dira.

"Gurean ondoetorriak izango dira munduko txapeldunak eta helmugara justu helduko diran korrikalariak. Guztiek daukie lekua Ubidestroi lasterketan".

Izena www.kronoak.com webgunean emon behar da.



MENDIA

Jokin Zabalak podiuma lortu eban Elgar Xut Kopan



Erredakzioa

Hirugarren egin eban Jokin Zabala mendi lasterketari bediazarrak Elgar Xut Kilometro Bertikaleko Kopan. Kopea lasterketa bik osotuten dabe: Askaingo Defi de la Rhune-k eta Ttuturru Xut-ek.

Askaingo lasterketeak 4,4 kilometroko luzeera dauka eta 850

metroko desnibela. Aprilaren 30ean jokatu zan eta bediazarrak 5. egin eban. Kopako bigarren lasterketea maiatzaren 8an jokatu zan. Bigarren lasterketea, Ttuturru Xut, Behorlegi mendirako igoera da eta 2,5 kilometroko ibilbidea eta 845 metroko desnibela daukaz han Zabalak laugarren egin eban, Kopako 3. postua lortuz Senior mailan.

MARATOI TXIKIA

Arratiako XLI. Maratoi Txikia bagilaren 5ean izango da

Urte biren ostean, bueltan da Arratiako Maratoi Txikia eta 41. edizioa izango da aurtengoa. Edade bakotxari egokitutako ibilbideagaz, ehundaka eskola-ume, zale eta atleta batzean ditu jai giroko proba honek. Nagusiek, Zeanuri eta Igorreren arteko 11 kilometroak egiten ditue eta horrek emoten deutso izena probeari.

Erredakzioa

Ibilbide hori egiteko Zeanuritik urtengo dira partaideak. Igorretik Zeanurira joateko, aurreko urteetan legez, autobusa ipiniko dau antolakuntzakoek.

DBHko ikasleek, Arteatik Igorrerako ibilbidea egingo dabe, Arteatik 10:30ean urtenda. Arteako plazan emon behar da izena eta dorsalak jaso egunean bertan.

Txikerrenek Igorren egingo dabe galapan euren edadeari egokitutako zirkuituan. Haur Hezkuntzakoak Igorreko kiroldegi aurretik urtengo dira eta 300 metro egingo ditue, kiroldegi atletik hasi eta bueltea emongo deutsie eskoleari. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako eskola-umeak barriz, Institutuko goiko sarreratik urtengo dira, Arantzazuko bidetik bueltea emon eta Igorreko eskolako patioko helmugara ailegauko dira 700 metro inguru eginda.

Laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoek barriz, 1.300 metro

inguruko zirkuitua egingo dabe Igorretik.

Sariei jagokienean, parte hartzean daben ume guztiek izango dabe saria. Nagusietan, andrazkoetan eta gizonezkoetan, kategoria bi egongo dira bakotxean, absolutua eta beteranoak, hain zuzen be.

Antolakuntzea

Gurasoek antolatutako lasterketa

hau, boluntarioen lanari esker ateraten dala aurrera azpimarratu gura dau Inma Valiente antolakuntzakoak. "Igorreko jubiladuak, AZEkoak, motor alkarrekoak... jente asko dago atzean ikusten ez dana eta behar handia egiten dauana, egunean bertan, aurreko egunetan eta abar. Institutuko ikasleak be egoten dira inskripzioak egiten eta kamisetak bananduten".



TXIRRINDULARITZEA

Etap bat irabazi eta hiru podium lortu ditu Julen Zuberok Titan Desert 2022an

Erredakzioa

Basamortuan jokatuten dan sei etapetako aurtengo Titan Desert 645 kilometroko proba gogorren, hirutan igon da podiumera Julen Zuberok ziklista lemoaztarra. Bigarren etapa irabazi, eta amaieran, hirugarren izan zan sailkapen orokorrean, Koony Looser eta Francisco Herreroen ostean. Master 40 kategorian irabazlea izan da. Maiatzaren 8tik 13ra jokatu zan Marokon Skoda Titan Desert 2022a.

Lasterketa honetan beteranoa da lemoaztarra, aurtan hamargarrenez egin dau, eta bere helburua izaten da etaparen bat irabazi eta sailkapen orokorrean aurrean geratu. Holan egiten dau eta aurtan, sei etapetan, danetan egon da aurrean, "fisikoki ondo egon

naz eta hortik egunero aurrean egotea, eta sailkapen orokorrean hirugarren egitea. Bigarren etapen ondo joateaz gainera, nabigazioa ondo urten jatan

eta holan irabazi neban bigarren etapa" azaldu deutso Zuberok BEGURI. Etapea, Looser aurreko eta aurtengo edizinoan irabazleari sprint-ean irabazi eutsan.



MENDIA

Onditz Iturbek bigarren egin eta Euskadiko Selekzinoak irabazi eban Federazinoen Espainiako Trail Txapelketea



Erredakzioa

Katalunian, Bergako lasterketan egon zan Onditz Iturbe atleta igorretarra Euskadiko Selekzinoagaz Espainiako Autonomietako Federazinoen Trail Txapelketan. EAEko Selekzinoak irabazi eban. Iturbek bigarren egin eban Sara Alonso taldekidearen atzetik.

Lasterketako ibilbideak 26 kilometro eta 1.760 metroko desnibela euki eban. Igorrekoa hasikeratik ipini zan tropelaren buruan, baina gero Sara Alonsok harrapau eta irabazi

eban lasterketea. "Lasterketearen perfila ez zan nire ezaugarrietako egokiena, ze erdia baino gehiago beharantza zan. Baina espero baino askoz hobeto ibili nintzan eta emaitza polita lortu neban" azaldu deutso BEGITURI Iturbek. Egindako lanagaz pozik geratu zan eta giroa be sekulakoa izan zala dino.

Talde bakoitek lehenengo hiruren denporak hartu ziran kontuan taldekako sailkapenerako eta egindako lan bikainari esker EAEko nesken selekzinoak irabazi eban Espainiako Txapelketea.

FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia B taldea lidertzan eta Lemoako Harrobi bigarren dago

Gizonezkoen Arratia B taldeak San Miguel taldearen kontra hilaren 14an jokatutako partidua irabazi baeban mailaz igongo eban, baina husna bardindu eta oindino ez dau igotea lortu. Lemoako Harrobik datorren partidua irabazi ezkerro lider ipini eta igoteko aukera handiak izango leukez eta Arratia Ak badauka oindino aukeraren bat mailaz igoteko.

Erredakzioa

Gizonezkoen Arratia A taldeak 0-1 galdu eban maiatzaren 14an Erandio B taldearen kontra Urbietan jokatutako partidua. Datorren partidua Astrabuduako taldearen kontra jokatuko dau maiatzaren 22an, arrastiko 18:30ean etxetik kanpo. 36 jardunaldiren ostean

eta ligea amaituteko jardunaldi bi falta diranean Arratia hirugarren postuan dago 68 puntugaz. Arratia A sano ondo ibili da urte osoan eta oindino badauka aukerarik, gaxt daukan arren, mailaz igoteko.

Arratia Bk oster a San Miguel taldearen kontra Basaurin jokatutako partidua irabazi baeban mailaz igongo eban baina husna bardin-

RAIDA

Orientazinoaz gainera, proba bereziak egongo dira Arratia Raid Ertainan

Maiatzaren 22an izango da, 10:00etan hasi eta gehienez 3 ordu eta erdian egin beharreko proba hau. Bikoteka edo taldeka, mapa baten markauta dagozan baliza puntuak topau behar dira, bizikletaz edo oinez. Ibilbide bi dagoz aukeran, bata luzea, baliza guztiak hartzeako, eta bestea laburra.

Erredakzioa

Proba luzea egiten dabenek, orubete eta erdiko mendiko bizikletea eta beste horrenbesteko trekkinga daukie baliza guztiak hartzeako. Horrezaz gainera, Igorre eta inguruetan, 8 bat "proba berezi" izango ditue. Proba bereziak, orientazinoan ardatza daukien jolasak, eski kooperatiiboak, begiak tapauta itsu egiteko bidea, boom edo minak jolasa, ginkanea mendiko bizikleteagaz Arratia Ziklista Elkarteak lagunduta, eta abar.

Ibilbide laburra egiten dabenek barriz, "gure dabena egingo dabe. Zer izango litzateke politena? Ba proba berezi guztiak egitea eta gero bizikletan edo oinez ahal edo gura dabene balizetara hurreratzea" azaldu deutso BEGITURI Xabier Iturriaga antolakuntzakoak. Umeakaz egiteko proba aproposa dala uste dau Iturriagak; izan be, jolasak, bizikletea, mapakaz eta abar ondo paseteaz gainera, Arratiako eskola guztietan orientazino landuten dabiz. Maiatzeko atzenengo astean, 5. eta



6. mailako ikasleak, Otxandion egiten diran orientazino topaketara joaten dira.

Parte hartzea

Proba ahalik eta persona gehien parte hartzeako modukoa izatea gura dabe antolatzaileek eta bide desbardinak izango ditu bakoitxak gura dauana aukeratzeko. Taldeek gehienez bost lagun izango dabez. 14 urte baino gutxiagokoek, nagusi bat izan behar

dabe derrigorrez taldean; 14 eta 18 urte bitartekoek, gurasoen baimenagaz, taldean nagusi bat egon barik be hartu leikie parte. Partaide bakoitxak 5 euro ordaindu behar dauz, 18 urte baino gutxiagokoek eta guraso alkarte-koek, 3 euro. Izena Arratia Raid Facebookean emon daiteke.

Mendi bizikletea, kaskoa eta trekkinga egiteko zapatilak eroan behar dira. Iparrorratza eroatea be gomendatzen da.



Arratia B taldea.

Hauskaitz taldearen kontra irabazi eban 2-3. Oin final-laurdenak jokatuko dauz maiatzaren 21-22ko astegoienean Real Sociedad Bren kontra etxetik kanpo.

Andrazkoen Arratia B taldeak ligako atzen partidua jokatu eban zapatuan, hilak 14, Sestao River taldearen kontra etxetik kanpo eta 6-1 galdu eban. Ligea 14. postuan amaitu dau Arratia Bk.

Arratiak presidente barria

Arratia futbol taldeak igazko neguan emon eban jakitera gaur egungo presidentek, Asier Etxezarragak, 13 urte eta gero ez

ebala karguan jarraituko. Bagilaren 30etik aurrera Pedro Jose Ormazabalek hartuko dau bere lekua.

Lemoako Harrobi

Lemoako taldeak 3-0 irabazi eban Orduñaren kontra Arlonagusian hilaren 14an jokatutako partidua. Datorren partidua Etxebarri A talde liderraren kontra jokatuko dau hilaren 21ean arrastiko 18:45ean etxetik kanpo. Partidu hori irabazi ezkerro lehen postuan ipiniko da Lemoako Harrobi. Bigarren postuan dago Lemoako taldea ligea amaituteko partidua bi baino ez diranean falta 66 puntugaz.

ANTZEZLANA

Umeentzako ikuskizuna
Igorreko eskolako patioan

Erredakzioa


Maiatzaren 27an, barikuan, 18:00etan, *Urpekontzi misterioitsua* 3 eta 12 urte bitarteko umei eta euren familiei zuzendutako ikuskizuna egongo da Igorreko eskolako patioan.

Ordubeteko emonaldian, antzerkia, zuzeneko musika, mezu didaktikoak eta jantzak batzean ditu ikuskizunak.

Sinopsia

Simon, Bobby eta Janis aspaldiko

lagunak dira. Udako egun bero baten, uriko asfaltoan atzean itxi, eta hondartzara joatea ebatzen dabe. Uretan jolasean dabizala, urpekontzi itxurako zeozer ikusten dabe urrunean. Baina gauzak ez dira itxurearen arabera...



IPUINAK

Maite
Franco ipuin
kontalaria
Kotxepinen
egongo da
hilaren 25ean

Erredakzioa

Maiatzaren 25ean, 18:30ean, 4 eta 8 urte bitarteko umeentzako *Zorte txarreko otsoa* ipuin kontaketa egongo dau Maite Francok Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Otsoen inguruko ipuin dibertigarriak baina barruan balore interesgarri asko dituenak kontauko ditu: norberaren identitatea, bildurrei aurre egitea eta aniztasun funtzionala lango gaiak landuz.

Sinopsia

Zorte txarreko dabil Otsoko. Dana txarto urtetan jako. Ez dau janariarik topetan, edo topetan dauan janariak ziria sartzean deutso, iges eginda; txarriek, antxumeek eta baita Txanogorritxok berak be bai. Edo ezpabere Otsoko bera da iges egiten ixten deusena. Horregaitik oin inor ez da haren bildur. Eta hau gitxi balitz, Txanogorritxoren amamak super eskopeta bat erosi dau. Ezin amamarik be jan! Zer egongo ete dau gure Otsoko gizajoak hemendik aurrera bizirauteko?



ANTZEZLANA

Mediterranea eta
migratzaileen gaia landuten
dauan ikuskizuna Kotxepinen

Erredakzioa

Patxi Zubizarretaren *Korri Kuru korri* liburuan oinarritutako objektu eta txotxongilo ikuskizuna egongo da ikusgai maiatzaren 21ean Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, Pantzart konpainiaren eskutik 18:00etan. 4 eta 9 urte bitarteko umeentzako ikuskizun honek jirafa baten bidaia Mediterraneoan zehar kontetan dau, legez kontrako migrazioa eta herrimina lango gaiak landuz. Benetako istorio baten oinarrituta dago. Zubizarretaren lanak, 2019ko Euskadi Literatura Saria lehiaketan Euska-

razko Haur eta Gazte Literatura atalean, saria jaso eban.

Objetu eta txotxongiloak, XIX. mendean jirafa batekin egindako bidaia eta protagonista dan mutikoak egiten dauana batzean dauz Pantzart konpainiak. "Bazen behin jirafa bat Mediterraneo osoa zeharkatu ebana. Etiopiatik Parisera 1827an egin eban bidaia, abenturez betetakoa. Oin, Kuru mutikoak be bidaia bera egin dau, eta ospitale baten bere onera etorri da. Han neska gazte batek topo egin dau, patua dala-ta, jirafaz moztortuta doana...".

ANTZEZLANA

Ikuspegi feministako zahartzaroa oholtzan

Maiatzaren 21ean, 17:30ean, Mari Luz Estebanek eta

Metrokoadroka kolektiboak *Andrezaharraren manifestua*

liburuko poema irakurriak buztartuko ditue poema bisual eta antzeztuakaz, modu umoretsu eta aldarrikatzailean.

Erredakzioa

Oholtzan bost andra zahar egongo dira Mari Luz Esteban, Ainhoa Alberdi, Idoia Beratarbide, Iraia Elias eta Jurdana Otxoa ahotsa ipinten andra zaharren aldarrikapenei.

Mari Luz Esteban Gizarte-antropologia irakaslea da EHUn, antropologia feministan eta gorputzaren antropologian aditua. Bere beste lan batzuk, *Crítica del pensamiento amoroso* (Ediciones Bellaterra, 2011), edo *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* (Susana Lisipe, 2017), eta *Amaren heriotzak librego egin ninduen* (Pamiela, 2013), liburuak dira. Zahartzaroa ikuspegi feministak landuteko, ikerketa bat egin baino manifestua egin gurago izan eban, "bazterrak mobidu arazoteko, pentsau eta hausnartu daigun". Izan be, gizar-

te honetan zahartzeak, eta batez be andren zahartzaroak, zuztar luzedun klitxeak aktibetan ditu.

Aldez aurretik emon behar da izena bardintasuna.arrantia@bizkaia.org edo 688 627 393 edo 94 631 17 17 telefonoan.

Morea eta Grisa

Zahartzaroaren gainean haus-

narketa feministea egiteko Ilgoran Arratiako Andren Jabe-kuntza Eskoleak, Morea eta Grisa ekimena ipini eban martxan 2019. urtean. Helburua, andra zaharraren estereotipoetatik harago, zahartzaro feministea eta librea izateko, hausnarketa eta eztabaida espazioak sortzea da.



ANTZERKIA

Umeek egindako antzerkia
eta zinea ikusgai Arratiako V.
Antzerki Topaketetan

Erredakzioa

Maiatzaren 30ean eta bagilaren 1 eta 2an, 17:30ean, Areatza, Artea, Igorre eta Lemoako eskoletako umeek, urtean zehar landutako dramatizazioaren emaitza erakutsiko dabe Igorreko Lasarte Aretoan: Lemoakoek bullying-aren gaineko hiru film; Igorrekoek ipuin klasikoetan oinarritutako antzezlana; Areatzakoek musikal bat eta Arteakoek film saritu baten antzerkirako egokitzapen bat eta *sketch*-ez osotutako beste pieza bat.



Euskerea, balioetan eta tesuinguru kulturean oinarrituta, Kurkuluxetan Kultur Elkartekoek, topaketa honek eta benetako taula baten gainean eta publikoaren aurrean antzezte, prozesuaren momenturik gorena dala, baina ez inportanteena dinoe, prozesua bera dala inportanteena. "Dramatizazioa eta antzerkigintzea gauza desbardinak dira. Dramatizazioaren helburua da prozesua; antzerkigintzearena, antzezlana. Gure helburua, dramatizazioa umeentzako tresna bat izatea da, baliabide bat, euren bizitzarako balioko dauana. Hau da, guretzat askoz inportanteagoa da publiko aurrean berba egiten jakitea, lotsea kentzea, gorputzagaz gauzak aditzera emotea, hartu-emonak beste era baten egitea... Shakespeare bat ondo egitea baino. Horregaitik da inportantea prozesua. Eta esperientziak erakutsi deusku, egundoko aldatetak nabari dituela gurasoek, irakasleek eta umeek" azaldu deutso BEGITU Koldo Ze-

lestino Kurkuluxetan alkatetakoak. Prozesu hori guraso eta irakasleak alkarlanean egiten dala eta guraso alkatete eta udalen laguntzeagaz adierazo dabe.

Topaketen helburua, beste batzuen artean, ikasturtean zehar egindakoari helmuga bat emon eta ikustea beste eskola batzuetan zer dabizen egiten da. Izan be, Arratian, 400 ume baino gehiago dagoz dramatizazioa landuten Kurkuluxetanegaz: Igorreko eskolako 3 gela, Lemoako beste 3 gela, Arteako eskola osoa, 3 zikloak, eta Areatzako eskolako gela bat.

Egitaraua

Maiatzak 30, astelehena

Lemoako eskolearen *Erabakia zure esku* filma.

Arteako eskolearen *Semaforoa*.

Igorreko eskolearen *Gaiztoa izan nahi ez zuen otsoa*.

Bagilak 1, eguaztena

Lemoako eskolearen *Ausarten kluba* filma.

Areatzako eskolearen *Ro Ro Ro Rolling Stones*.

Igorreko eskola: *Zuhaitz beldurtia*.

Bagilak 2, eguena

Lemoako eskolearen *Jazarpen dantza* filma.

Arteako eskolearen *Osabaren herredentzia*.

Igorreko eskolearen *Inazio erregea*.

ANTZEZLANA

Hika Teatroak *Tarara* antzezlana dakar Igorreko Lasarte Aretora

Maiatzaren 28an, 20:00etan egongo da ikusteko aukerea. Antzezlana, parkamenari, adiskidetasunari eta amatasunari egindako gorazarrea da.

Erredakzioa

Josi Alvarado da egilea eta Arantxa Iturbek euskeratu dau. Alvaradoren testuak 2019ko SGAE-ren Ana Diosdado I. Antzerki Saria irabazi eban.

Agurtzane Intxaurraga da zuzendaria eta Tania Fornieles, Kepa Errasti, Jurdana Otxoa, Eneritz Artetxe, Jose Cruz Gurrutxaga, Adrián García de los Ojos eta Iñar Sastre antzezleak.

Sinopsia

Bilboko Sanfran auzoan bizi dan

Rosa bibolinjolearen istorioa kontetan dau. "Sensibilidadere eta dotoretzia handiko testua da, idatzita dagoana baino gehiago adierazoteko gai dana, emozinoa darien isiluneen bidez musikea transmitiduteko gai dana. Testuak *thriller* bokazioa dauka, eta poesiaren dardarak astintzen dau. *Tarara* inoz kontau ez dan hainbat umeren historia da; haragiaren barrurako bidaia inizatitokoa, menpekotasun sortzailea. Parkamenari buruzko ipuina da, diferentziaren goraiapamena, eta Txanogorritxuk, azkenean, bibolina joko deutse otsoei".



BERTSOLARITZEA

Iturriagak eta Maiak botako dabez bertsoak Diman balkoitik balkoira

Bagilaren 4an, 12:30ean, izango da bertso-saioa. Unai Iturriaga eta Jon Maia bertsolariak udaletxe eta Aramotz tabernako balkoietan hasi eta plazan amaituko dabe saioa.



Erredakzioa

Dimako bertso eskoleak antolatatu dau bertso-saioa Udalaren laguntzeagaz. Aurtengoa 21. edizioa da.

Udabarriko bertso-saioa aspaldikoa izan arren, indarrean egozan neurriak zirala-ta, balkoitik balkoira formatua Covid sasoiari hasi zan, 2021ean, hain zuzen be. 2020an ostera ez zan bertso-saiorik antolatu.

Igaz be Iturriaga eta Maia egon ziran. Iturriagak Aramotz taber-

nako balkoian kantatu eban eta aurten udaletxeokan toketan jako, eta Maiari alderantziz. Balkoietan hasten dira bertsoak botaten baina plazan amaituten dabe. "Oso sinbolikoa da, udaletxeo balkoioa arean gorago dago, baina azkenean biek lur bardina zapaltzen amaituten dabe saioa, parean" azaldu deutso BEGITURI Ibon Iza antolakuntzakoak.

Bertsolari bi honeek ia beti etorri dira 20 urte honeetan, "hor be badago hari bat, batzean gaituan kordela" dino Izak.

UEU

Dimako aktore bi *Bekaduna* websailean

Erredakzioa

UEUk 50 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko *Bekaduna* umorezko websaila estrenau dau. Bertan, aktore lanetan, Dimako Nekane Intxaurtza eta Ainhoa Latatu dagoz; izan be, UEUko lantaldekoek egiten ditue aktore lanak sail honetan. UEUk, Bira Produzioak eta Hiru Damatxok egin dabe alkarlanean *Bekaduna*.

Websailaren helburua, 50. urteurrena beste modu baten ospatuteaz gainera, UEU ezetuten ez dauan publikora ailegetea da eta horretarako umorezko websaila egitea egoki jo eben. Lau kapitulu osotuta dago, maiatzaren 4an estrenau zan eta hamabostean behin kapitulu bat aterako dabe. "Hasikeran aukerea emon euskuenean argi neukan parte hartu behar nebala, nahiz eta holango gauzetarako lotsatia izan. Parte hartu izanagaz poz-ozik, bitartean nerbioak aidean izan banebazan be. Piloa disfrutau genduan grabazioan. Honetarako lantaldeari aukerea emon izanagaz UEUgaz harro nago, oso-oso harro" azaldu deutso BEGITURI Nekane Intxaurtzak. Eta eretxi bardinekoa da Ainhoa Latatu. "Webseriea grabetea UEUn zelan egiten dogun lan edo gure izaerea adierazoteko edo erakusteko sekulako aukera polita izan da, gure lana beste begi batzukaz ikusi eta, zergaitik ez, geure buruaz barre egiteko".

DUNBA

Azoka solidarioa

Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Igorreko azoka solidarioa apirilaren 30ean ospatu genduan. Hiruhileko honetan, beharrian gorrian dagozan personei lagunduten deutseen alkarre asko ezetu doguz eta geuk be gure aletoxa ipini gura izan dogu. Bizi eta eragin izena jarri geuntsan egunari, Bizi proiektuagaz batu genduzalako indarrak eta Igorreko guraso alkarrearen ezinbesteko laguntza euki gendualako. Bide batez, zorianak hesia margotuten ibili zirane, batez be, Igorreko jubiladuei, eskolako hesia itzel itxi deuskuzue eta.

Eguna bera ahaztuezina izan

zan, eta lortu genduan dirua Gure Señeak alkarreari emon geuntsan.

6. mailako ikasleak sano pozik gagoz gaixotasun arraroak daukiezan umeei, halan edo holan,

lagundu geuntselako. Sano ondo joan jakun eguna, danetarik egon zan: erropak, liburuak, apaingarriak, bertsoak, herri-kirolak, esku-pelotea, kantariak, musikea...

Denporeak be lagundu euskun, eta egia esanda, ez dogu hau egunau sekula ahaztuko, gainera, behar dabenei emotea baino ekintza ederragorik ez dagoala konturatu gara.

Gora alkartasuna!!



AGENDEA

MAIATZAK 17
AREATZA

17:00etatik 19:00etara, *Konektatutako haurtzarora eta nerabezarora*. Sare sozialen erabileran gertatzen diran indarkeria motaren inguruko tailerra eskolan.

Udabarri osoan zehar medi ibilbide autogidatua Urigoiti (Orozko)-Aldabide-Sintxita. Zailtasun txikia. Parkeko ur-jauziak ezetuteko aukerea. Informazio gehiago Parketxean. 94 673 92 79 eta gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus.

ARTEA

Maiatzaren 27ra arte, izena emon daiteke Arteako udaleku irekietarako. Udalekuak bagilaren 27tik garagarriaren 22ra izango dira 2010etik 2017ra jaiotako bitartekoentzat. Izena emon daiteke aste bat, bi, hiru edo lauretarako. Artean erroldatuek asteko 30 euro; ez erroldatuek asteko 40 euro. Udaletxean.

IGORRE

Maiatzaren 30era arte, izena emotea urri lehenengoaren 30etik urri bigarrenaren 5erako Costa del Solen jubiladuen egonaldirako. Bijaiea hegazkinez. 637 euro. Telefonoa: 94 631 61 20.

Bonodenda kanpaina bagilaren 30era arte.

Maiatzaren 20ra arte, goizez, hilaren 28an egingo dan Institutuko ikasle ohien bazkarirako txartelak salgai Institutuan.

LEMOA

Bagilaren 3ra arte, jaietako Kartel Lehiaketan parte hartzeako kartelak aurkeztu leikiez lemoaztarrek udaletxean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalak antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkia aurkezteko epea harrera@zeanuri.eus helbidean. Gaia: Zeanuri.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegiratu sortutako espazioan ipini.

MAIATZAK 18
ARANTZAZU

18:00etatik 20:30era, *Cocinar plantas silvestres* Marta Miramon eta Encarna Delgadoren ikastaroaren lehenengo saioa. Ikastaroa, bagilaren 8ra arte, eguaztenetan, Kultur Gunean.

AREATZA

17:30etik 19:30era, III. Bardintasunerako Plana egiteko prozesuan bigarren parte hartze saioa. Udaletxean.

ARTEA

18:00etan, Guraso eskola Roberto Aguado psikologoagaz Kultur Etxean.

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, maiatzaren 28an egingo dan Institutuko ikasle ohien bazkarirako txartelak salgai Institutuan.

MAIATZAK 19

IGORRE

17:00etatik 19:00etara, maiatzaren 28an egingo dan Institutuko ikasle ohien bazkarirako txartelak salgai Institutuan.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroaren saioa Idoia Eizmendiren eskutik. Kultur Etxean.

MAIATZAK 20
AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Andren Jabekuntza Eskolako *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* ikastaroa Mar Garroteren eskutik udaletxean.

IGORRE

18:00etan, Institutuko ikasleen agurra, Lasarte Aretoan.

LEMOA

16:30ean, mobikor eta kargadore bilketea + merienda postua eskolan. Erabilten ez diran mobikor eta kargadoreak batuko dira Irungo Harrera Sareari eroateko.

19:00etan, Jokin Bildarratz eta Begoña Pedrosaren berbaldia *XXI. mendeko hezkuntzaren oinarriak* Kotxepin Kultur Etxean. EAJ-PNVk antolatuta.

ZEANURI

19:00etan, hazi eta landare trukea Sagarna aurrean. Eguzkiolak antolatuta.

MAIATZAK 21
AREATZA

10:00etatik 14:00etara, Ilgoran Andren Jabekuntza Eskolako *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* ikastaroa Mar Garroteren eskutik udaletxean.

Danspirenaika. 16:30ean, Danspirenaikaren ondoetorria eta aurkezpena; 17:00etan, Sevillako Pilar Bacaren ikastaroa *Euskal jota eta buleria, konpasa partekatzen*; 18:30ean, Aiko taldearen ikastaroa *Joteagaz olgetan Arratian* komentuan; 20:00etan, jantzapotea Aiko taldeagaz Gudarien Plazan hasita.

ARRATIA

Arratiako Guraso Elkarten topaketa jaia Basoan (Arte). 12:00etan, Igorreko eskolan batu Baso-ra oinez joateko; 13:00etan, Dimako bertso eskolako bertsolariak; 13:30ean, mokautxo Institutuko ikasleek eta gurasoek antolatuta; 14:00etan, postre mahaia Institutuko ikasleek antolatuta; 15:30ean, adin guztietarako jolasak eta jolas librerako aukerea; 16:00etan, ginkanea; 17:00etan, 5. eta 6. mailako ikasleentzat alkar ezetuteko jolasak; 18:00etan, Kittu erromeria.

Autobusa egongo da Donostiara "Euskara aurrera" manifestazinora joateko.

ARTEA

10:00etan, Basoa Eskola *Gizarte mobimentuak eta desobediencia zibila* Basoak OEE eta KEM-MOC erakundeak antolatuta. Basoa etxean.



Musika argentinar euskalduna Kotxepinen

Maiatzaren 27an, 20:00etan, Euskal Herriko eta Argentinako doinuak batzean dituan kontzertua egongo da Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Sebastian Ustarroz eta Andoni Martinez de Ustaran musikari argentinar euskaldunek osotuten dabe Arbasaok taldea. Ustarrozen birraitita Nafarroatik, Uztarrotzetik, joan zan Argentinara "goseak bultzatuta" eta oin lobeia Hernanin bizi da. Baita Andoni Martinez de Ustaran be.

Biak batera, besteak beste, euskal doinu ezagunen moldaketak egiten ditue. Tartean, Xalbadorren he-riotzean egindako kantuaren bersino berezia.

DIMA

18:00etan, Andraizeak antolatuta, *Volar* dokumentala eta indarkeria matxistea bizi izan dauan andra baten testigantzea eskolako kamarinan.

IGORRE

17:30ean, *Andrezaharraren manifestua* antzezlanak Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, zapatu-domekako urtekerea. San Vicente de la Barquera-Cades, Cades-Cicera. Gamonal (1.225 m).

18:00etan, Panzart konpainiaren *Korri Kuru korri* 4 eta 9 urte bitarteko umeentzako antzezlanak Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Ubier garagardao jaia. 12:00etan, Garagardao azokea; 13:00etan, Txalainak bikotearen kontzertua; 19:00etan, Matt Horanen kontzertua; 21:00etan, The Longboards taldearen kontzertua. Ostein, AK Pintxadiskos dj-a.

ZEBERIO

Amaiur Untzeta Nafar Gaztelura igooera. 11:30ean, hamaiketako herrikoia Untzuetan; 12:00etan, aurraskua eta ekitaldia.

MAIATZAK 22
AREATZA

Danspirenaika. 10:00etan, Miarrizeko Maritzuli konpainiaren ikastaroa *Jauzika Pirinioetan*; 11:30ean, Ondarroako Ines Uriarteren ikastaroa *Bikotean gidatzearen oinarriko kontzeptuak* komentuan.

ARTEA

12:00etan, ate irekiak Basoan. Etxearen aurkezpena, vermut klandestinoa, musika zuzenean eta bazkari herrikoia.

IGORRE

10:00etan, Arratia Raid Lasarte parkean. 11:00etan, Parkour Masterclass. 11:00etatik 12:15era, parkourraren oinarriak; 12:30etik 14:00etara, hobekuntzea. Goiko Plazan. Izena aldeztu aurretik emon udaletxean.

17:00etan, zinea *El secreto de Vicky*; 19:30ean, *Canallas* Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 23

DIMA

18:30ean, konzentrazioa plazan "Bea eta semearentzako justizia!" lelopean.

LEMOA

10:30etik 12:30era, adinekoen erorketak saihesteko tailerra. Aldez aurretik izena emon Jubiladuen etxean, udaletxean edo

osasun zentroan.

ZEBERIO

18:00etatik 19:30era, andrentzako *Autozaintza emozionala* ikastaroa eskola zaharrean.

MAIATZAK 25
ARANTZAZU

18:00etatik 20:30era, *Cocinar plantas silvestres* Marta Miramon eta Encarna Delgadoren ikastaroko saioa, Kultur Gunean.

LEMOA

18:30ean, Maite Francoren *Zorte txarreko otsoa* 4 eta 8 urte bitarteko umeentzako ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 26
AREATZA

Xabier Lete gogoan. 19:30ean, Eugenio Ibarzabalaren berbaldia *Nik ezagutu dudak Xabier Lete* The Quiet Corner tabernan.

IGORRE

18:00etan, Arratiako Mobimentu Feministek antolatuta, Bea Ildaria Olanguaren berbaldia *Andrak zer ixaron geinke justizia sistemaz?* Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroaren saioa Idoia Eizmendiren eskutik. Kultur Etxean.

MAIATZAK 27
AREATZA

Areatza Musik & Beer. 19:00etan, Blues Morning Singers; 20:30ean, EraBatera; 22:15ean, A Contra Blues, 00:15ean, Laura Cox.

ARTEA

Jubiladuen alkarteak antolatuta, txangoa Iruñeara.

IGORRE

18:00etan, *Urpekotzi misteriotsua* 3 eta 12 urte bitarteko umeentzako ikuskizuna eskolako patioan.

LEMOA

16:30ean, mobikor eta kargadore bilketea + merienda postua eskolan. Erabilten ez diran mobikor eta kargadoreak batuko dira Irungo Harrera Sareari eroateko.

MAIATZAK 28
AREATZA

Areatza Musik & Beer. 12:00etan, Ostra eta garagardao maridajea Jamonostruck-en eskutik; 13:30ean, Gozo-gazi eta garagardao maridajea Bilbao Dulce Saladoren eskutik; 13:30ean, The Electric Alley, The L.A. Maybe eta Arratiako Musika Eskolako taldea, modu akustikoan Goikokalen; 17:00etan, Munduko IV. Garagardo Kupelen Jaurtiketa Lehiaketea; 18:00etan, Northagirres; 19:45ean, The Electric Alley; 21:45ean, The L.A. Maybe; 23:45ean The Treatment.

ARTEA

19:30ean, Begi Argiak Durangoko kamara abesbatzaren emonaldia Kultur Etxean.

DIMA

21:00etan, *Jentilak* Diman ibilbide mitologikoa

eta Akelarrea. Dimako plazan hasita.

IGORRE

Arratia BHIko ikasle ohien bazkaria. 11:30ean, 50. urteurreneko ekitaldien bideo emonaldia Institutuko aretoan; 13:00etatik 14:15era, bazkaltzeko mahaietan lekuen erreserba egitea Institutuko patioan; 14:30ean, bazkaria patioan; 18:00etan, jantzialdia Isma Pereiragaz; amaitukerakalejirena herrira.

20:00etan, *Tarara* antzezlanak Lasarte Aretoan.

LEMOA

Gaztelekuaren inaugurazio festa.

MAIATZAK 29
AREATZA

Parketxeak antolatuta, mendi ibilbidea. Pagomakurre-Arraba-Ipergorta-Urratxa. Ibilbide zirkularra, zailtasun ertaina. Izena emon gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

11:00etatik 12:30era, *Buztinagaz soinuka*, buztinezko okarina bat egiteko tailerra, 7-99 urte bitartekoentzat. 18 euro. Saioa Larrearen tailerrean, Askatasuna 29 kalean. Izena emon 615 731 182 telefonoan.

IGORRE

17:00etan, zinea *Go Fish: Salvemos el mar*; 19:30ean, *Alcarras* Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 30
ARTEA

19:00etan, Irakurleen txokoa. Arantxa Urrerabizkairena *Azken etxea* Kultur Etxean.

IGORRE

17:30ean, Arratiako V. Antzerki Topaketak. Lemoako eskolearen *Erabakia zure esku* filma; Arteako eskolearen *Semaforoa* antzezlanak eta Igorreko eskolearen *Gaiztoa izan nahi ez zuen otsoa* antzezlanak Kultur Etxean.

LEMOA

10:30etik 12:30era, adinekoen erorketak saihesteko tailerra.

18:00etan, bardintasunerako herritarren foroa sortzeako saioa Kotxepin Kultur Etxean (Aramotz gelan).

ZEBERIO

18:00etatik 19:30era, andrentzako *Autozaintza emozionala* ikastaroa eskola zaharrean.

BAGILAK 1
AREATZA

Xabier Lete gogoan. 19:30ean, Xabier Aierdiren berbaldia *Leteren ikuspegi dialektikoa: Izarren hautsa*. The Quiet Corner tabernan.

IGORRE

17:30ean, Arratiako V. Antzerki Topaketak. Lemoako eskolearen *Lemoako ausarten kluba* filma; Areatzako eskolearen *Ro Ro Rolling Stones* antzezlanak eta Igorreko eskolearen *Zuhaitz beldurtia* antzezlanak Kultur Etxean.

BAGILAK 2
AREATZA


Xabier Lete gogoan. 19:30ean, kontzertua Xabier Leteren musika eta poesia arratiarren aho eta taupadetan. The Quiet Corner tabernan.

IGORRE

17:30ean, Arratiako V. Antzerki Topaketak. Lemoako eskolearen *Jazarpin dantza* filma; Arteako eskolearen *Osabaren heredentzia* antzezlanak eta Igorreko eskolearen *Inazio erregea* antzezlanak Kultur Etxean.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

SALTZEAN DODAZ

Saltzean dodaz altzari barriak eta erdi-barriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitezkie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

BATERIA SALGAI

Yamaha markako bateria saltzean dot. Laranja kolorekoa. Interesdunek deitu 676 967 854 telefonora.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

CADDY LIFE OHEAGAZ SALGAI

Volkswagen Caddy Life 1.9 tdi, 2007koa saltzean da. Oheagaz dator, baita atzeko portoiari ipinteko abantzia be. Interesdunek 680 683 133 telefonora deitu edo oihane.regil@gmail.com helbidera idatzi.

PISUA BEHAR DA ERRENTAN

Saharako gazte batek pisu merkea errentan hartu gura dau Igorre edo inguruetan. Lana (nominea) dauka.

10 urte inguru daroaz Euskal Herrian. Interesdunek 631 104 818 edo 607 841 058 telefonoetara deitu edo rakelgoni@gmail.com helbidera idatzi.

LANA

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.

SUKALDARI BILA

Zatzaparrak-ekoak udaleku ixietarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren 1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezker idatzi zatzaparrakudalekuitxiak@gmail.com-era.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Tarara** antzezlanerako.


Imanol Gartzia (Lemoa)
Matxalen Legarreta (Getxo)



2

Kotxe pin Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Arbasoak** taldearen kontzerturako.

Josean Bengoetxea (Lemoa)
Begoña Picaza (Igorre)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean moda
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semoda@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3- 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

begitu
eus



Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA 4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

*** INFORMAZIOA:**

- Web gunean
- Asteleheneretik ostiralera
10:00etatik - 13:00 arte
- Telefonoa: 94 631 73 52

MATRIKULA

Epea: maiatzean



- Matrikulazioa ONLINE:
www.arratiakomusikaeskola.eu



**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitetz Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuota: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.